

Gaia, Emaús eta Enpresa Zientzien Fakultateak, euskal enpresak Txinan bisitatu dituzte

2009/11/06

GAIA-Cluster TEIC, Emaús Gizarte Fundazioa eta Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateak, Chinan kokatutako euskal enpresen 12 filial bisitatu dituzte. Honen helburua, ekialdeko merkatuko sarrera esperientzia ezagutzea izan da alde batetik eta bestetik herrialde horren garapen ekonomikaon eta baita ere gizarte eta ingurugiro garapenean jotzen duten papera ezagutzea.

Ekimen hau, Eusko Jaurlaritzak duen Garapenerako Kooperazio Zuzendaritzak finantziatu du. Gizarte Arduraren barneratzeak bai Euskal Autonomi Erkidegoan eta baita ere kanpoan, inpaktu sozioekonomikoa, bikaintasuna eta konpetitibitatea bultzatzeko garapenean dauden herrialdeetan baliabide garrantzitsua dela multilokalizazioa duten enpresentzat du oinarri.

Helburua, Chinan kokatuta dauden era honetako ehun bat enpresaren artean, lagin baten egoera estrategikoaren analisia egitea izan da. Enpresa hauek, espainiatik bertan kokatuta dauden 600 enpresa inguruko taldean daude. Hain zuzen ere, Sahghai, Pekín edo Jiangsun bezalako hiri industrializatueta. Azken hiru urte hauetan, Kunshan, Teianjin edo Hog Kong ere bihurtu dira Euskal Autonomi Eskidegoan dauden enpresen filialen kokapen. Industri inguru hauetan, Mondragon taldeko, GAIAko, Gamesa ed Intercoopeko eta Eroskiko erosketa zentralak kokatu dira. Aldi berean, taldeak, bilerak izan ditu beste esparru batzuetako erakundeekin; esaterako, unibertsitateak eta Gizarte Arduratan adituak diren aholkularitza enpresak.

